

EZ OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko martxoaren hogeita lauko gaueko bederatzia direnean, bildu dira, ez ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar Zinegotzia

Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti Zinegotzia.

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia, ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2010EKO URTARRILAREN 28 ETA OTSAILAREN 4KO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2010eko urtarrilaren 28 eta otsailaren 4ko akten berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO GAZTELEKUKO ERABILERA ETA KUDEAKETA EMATEKO ADJUDIKAZIOAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.

Ikusirik Errezilgo gaztelekuko eta liburutegiko erabilera eta kudeaketa emateko adjudikaziorako ondorengoak aurkeztu direla:

Lehiaketara aurkeztutakoak, honakoak dira:

1.- Asier Gurruchaga Zabala (sarrera zk 53)

2.- Gorka Tolosa Usarraga (sarrera zk 54)

Beraren proposamena ondorengo delarik:

1.- Asier Gurruchaga Zabala: urteko kanona 40.000,00 €

2.- Gorka Tolosa Usarraga: urteko kanona 36.000,00 €

Ikusirik enpresa bakoitzak aurkezturiko proposamena eta dokumentazioa aztertu direla eta pleguetan aipatzen diren balorazioak kontuan izan ondoren, bakoitzaren baloraketa eta puntuaketa egiten dela:

1.- Prezio txikiagoa izatea: 10 puntu arte gehienez.

1.- Asier Gurruchaga Zabala: 0 puntu

2.- Gorka Tolosa Usarraga: 10 puntu

2.- Egindako lanak: 4 puntu arte gehienez.

a) Gazteriari zuzendutako jardueretan aritzea:

1.- Asier Gurruchaga Zabala: 2 puntu

2.- Gorka Tolosa Usarraga: 0 puntu

b). 1.000 biztanletik beherako herrietan gazteriari zuzendutako jarduerak egitea:

1.- Asier Gurruchaga Zabala: 2 puntu

2.- Gorka Tolosa Usarraga: 0 puntu

3.- Memoria: 5 puntu arte.

1.- Asier Gurruchaga Zabala: 4,5 puntu

2.- Gorka Tolosa Usarraga: 4 puntu

4.- Elkarrizketa: 6 puntu arte.

1.- Asier Gurruchaga Zabala: 4,5 puntu

2.- Gorka Tolosa Usarraga: 4,5 puntu

Guztira:

- 1.- Asier Gurruchaga Zabala: 13,00 puntu
- 2.- Gorka Tolosa Usarraga: 18,50 puntu.

Ikusirik guzti honen ondorioz, Kontratazio Mahaiak, Udaltzari GORKA TOLOSA USARRAGARI urteko kuota gisa hogeita hamasei mila euro (36.000,00 €) ordainduaz adjudikatzeko proposamena egiten diola.

Ikusirik kontratua urtebetekoa izatea proposatzen duela, gehienez ere 5 urte arte luzatu daitekeelarik.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Luis Berrondo Lanceta, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, gazteleku eta liburutegiko ustiapena Gorka Tolosa Usarraga jaunari adjudikatzea eta Alkateari berarekin kontratua sinatzeko baimena ematea onartu da.

Ondoren, Koldo Albisuak komentatzen du, baldintza pleguko irizpinenak aldatu beharko lirakekeela, zeren elkarrizketa eta memoriari 11 puntu ematen zaizkio eta gazteriari lotuta dauden lanei 4 puntu ematen zaizkie.

Koldo Arzallusek dio, esleipenduna izan behar duenak gauza konkretuagoak egin behar dituela esan beharko luke eta ez entrebistan esan bezela, egingo dut.....

Koldo Albisuak dio, entrebistan oso nabarmena izan behar dela, bati puntu batzuk ematea eta besteei beste puntu batzuk ematea.

HIRUGARREN PUNTUA:
ERREZILGO UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO PROIEKTUAREN OBRA LANAK EGITEKO KONTRATU ESPEDIENTEAREN ONARPENA,

**KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN PLEGU EKONOMIKO
ADMINISTRATIBOEN ONARPENA ETA ESLEIPENARI HASERA EMATEA.**

Idazkariak Errezilgo Udaletxean igogailua instalatzeko proiektuaren lanen esleipena arautuko duen baldintza ekonomiko administratiboen berri ematen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Berrondo Lanceta, Luis Albisua Lasa eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, Errezilgo Udaletxean igogailua instalatzeko proiektuaren lanen esleipena arautuko duen baldintza ekonomiko administratiboak onartuta geratzen dira.

**LAUGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

1.- Otume baserriaren lehen erabilpeneko baimena eman aurretik, dokumentazio eskaera.

2.- Artaunsoro baserrian pertsona bat erroldatzea.

3.- Sara etxean kokaturiko etxebizitzan pertsona bat erroldatzea.

4.- Erkizi Berri deituriko bi bizitzako eraikin berria jabetza horizontalean banatzeko eskaera onartzea.

5.- Kreditu txertaketa onartzea.

6.- Sara etxean kokaturiko etxebizitzan pertsona bat erroldatzea.

- 7.- 2009ko 2.sehilabeteko uraren padroia onartzea.
- 8.- 2009ko 2.sehilabeteko zabor bilketagatiko padroia onartzea.
- 9.- Arteria legeztatzeo iharduera espedienteari hasera ematea.
- 10.- Lizarreta-Errota baserriaren lehen erabilerako baimena ematea.
- 11.- Berriki baserriaren ondoan eraikitako bi bizitzako etxebizitzaren inguruan aurkezturiko dokumentazioa onartzea.
- 12.- 2010eko urtarrileko fakturen onarpena.
- 13.- Ezindu baten laguntzaile lanak egiteko kontratazioa.
- 14.- 2010eko otsaileko fakturen onarpena.
- 15.- Ibilgailuaren gaineko zergaren exentzio bat onartzea.
- 16.- Ibilgailuaren gaineko zergaren exentzio bat ez onartzea.
- 17.- Ibilgailuaren gaineko zergaren exentzio bat ez onartzea.
- 18.- Ibilgailuaren gaineko zergaren exentzio bat ez onartzea.
- 19.- Ibilgailuaren gaineko zergaren exentzio bat ez onartzea.
- 20.- Madrilesa etxebizitzako 1º solairuko etxebizitzaren lehen erabilerako baimena ematea.
- 21.- Madrilesa etxebizitzako 2º solairu eta teilatu azpiko etxebizitzaren lehen erabilerako baimena ematea.
- 22.- Madrilesa etxebizitzako behe solairu eta semisotanoko zati baten lehen erabilerako baimena ematea.
- 23.- Hiritar Lurzoruko 4/1 H.I.B. unitatean kokaturiko terrenoaren segregazio baimena.
- 24.- Ezama-Enea baserrian ganadu jarduera legeztatzeo iharduera baimenari hasera ematea.

25.- 2010.urteko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartzea.

26.- Hiritar Lurzoruko 4/1 H.I.B. unitatean kokaturiko terrenoaren segregazio baimena.

27.- Sagastialde etxeko 5 zenbakian pertsona bat erroldatzea.

28.- Sara etxean kokaturiko etxebizitzan pertsona bat erroldatzea.

29.- Komunitatearen aldeko lanak egiteko eskaera onartzea.

**SEIGARREN PUNTUA:
GALDERA ETA ERREGUAK.**

1.- Koldo Albisuak galdetzen du ea Zelatungo bidea nola konpondu den.

Iñakik erantzuten dio, Udalak langileak jarri dituela eta Akerra Elkartek, Arratzeko bordak eta Antonion bordakoek aldiz materiala.

Koldo Albisuak dio, bide hau baino lehentasun gehiago daukaten bideak badaudela.

Eta Iñakik erantzuten dio, Udalaren bidea auzotarren laguntza ikusita konpondu egin dela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta berrogei minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.